SERIEAREN KODEA	0183

I.- IDENTIFIKAZIOA

1.1. Seriearen izena

1.1.1	Artxibo-zerbitzuko erreferentzia-kodea		
1.1.2	Artxiboko sailkapen-koadroko kodea		
1.1.3	Indarrean dagoen izena	Diru-sarrerak bermatzeko laguntza	
1.1.4	Aurreko izena / beste izen batzuk		
1.1.5	Definizioa/deskribapena	Laguntza ekonomiko bat da, Gipuzkoan bizi diren eta oinarrizko premiei erantzuteko diru-sarrerarik ez duten edo diru-sarrera nahikorik ez duten bizikidetza-unitateen oinarrizko premiak betetzeko helburua duena	
1.1.6	Egilearen edo egileen izena	Erakundea: Oiartzungo Udala Arloa: Gizarte Zerbitzuak Saila: Gizarte Zerbitzuak Zerbitzua: Unitatea: Unitate teknikoa:	
1.1.7	Serie baten zatia	Bai:	Ez: X

1.2 Jatorria eta sortze- eta iraungitze-data

Organismoa	Administrazio-unitatea / Funtzioa	Hasierako data	Amaierako data
Toki-administrazioa	Gizarte Zerbitzuak	2012	2018

1.3 Lege-esparrua

1.3.1 Orokorra

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren zenbakia	Argitalpen-data
FA	63/1989	eskualdeei buruzkoa	1989/11/20	ALHAO, 142. zk.	1989/12/11
FA	11/1995	Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzkoa	1995/03/20	ALHAO, 038. zk.	1995/03/31
FA	3/95	Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzekoa	1995/03/30	BAO, 073. zk.	1995/04/18
FA	6/2007	Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena	2007/04/10	GAO, 078. zk.	2007/04/23
FD	31/2012	Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza ezartzekoa	2012/06/19	GAO, 122. zk.	2012/06/27
FD	35/2013	Ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretua aldatzekoa	2013/10/15	GAO, 202. zk.	2013/10/22

FD	22/2014	Ekainaren 19ko 31/2012 Foru Dekretua aldatzekoa	2014/07/08	GAO, 132. zk.	2014/07/14
FD	14/2016	Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza modu mailakatuan ezeztatzekoa	2016/06/28	GAO, 124. zk.	2016/06/30

II.- EZAUGARRIAK

2.1 Ezaugarri fisikoak eta orokorrak

2.1.1	Euskarria	Papera / Elektronikoa
2.1.2	Deskribapen-maila	Seriea
2.1.3	Kopiarik badagoen beste euskarri batzuetan	
2.1.4	Urtean zenbat handituko den (balioespena)	
2.1.5	Seriearen bolumena	
2.1.6	Ordenatzeko irizpideak	Kronologikoa
2.1.7	Seriearen hasierako data	**2012**
2.1.8	Seriearen amaierako data	**2018**
2.1.9	Ale-kopurua eta non dauden	Artxiboa, 3 espediente

2.2 Izapidetze-prozedura

2.2.1	**Espedientea osatzen duten dokumentuak**

-Eredu normalizatua, udaleko gizarte-zerbitzuek emandakoa
-NANa edo nortasuna egiaztatzeko beste dokumenturen bat
-Familia-liburua
- Erroldatze-ziurtagiria, etxebizitzan bizi diren pertsona guztien zerrenda jasotzen duena. Duela urtebetetik hona bizileku izan dituzten helbideen erroldatze-ziurtagiriak.
- Bizikidetzako unitate ekonomikoko kide guztien diru-sarreren eta ondarearen egiaztagiriak: posizioen banku-ziurtagiriak. Besteren konturako langileak: hileko azken nominaren fotokopia. Norberaren konturako langileak: PFEZaren azken aitorpenaren kopia edo, halakorik ezean, diru-sarreren zinpeko aitorpena. Kotizaziorik gabeko lan-sarrerak: diru-sarreren zinpeko aitorpena. Langabeak: prestazioaren edo subsidioaren azken ordainagiriaren fotokopia, edo SEPEren ziurtagiria, egungo prestazioena edo subsidioena. Aldizkako beste prestazio batzuk: azken ordainketaren ordainagiriaren fotokopia, hitzarmen arautzailea edo dagokion ebazpena. Jatorriko herrialdeko ondasunen ziurtagiri ofiziala.
- Lanbideko inskripzio-ziurtagiria.
- Bananduta edo dibortziatuta badago edo ezkontza deuseza bada: dagokion ebazpenaren fotokopia, doako justizia eskatzeko eskabidea, hala badagokio, eta epaia betearazteko erreklamazioa, mantenu-pentsioa edo konpentsazio-pentsioa ordaintzen ez bada.
- Hala dagokionean, eduki ekonomikoko eskubideak baliatzeari buruzko dokumentazioa.
- Udalak kasu bakoitzerako adierazten dituen gainerako dokumentuak.

2.2.2	**Administrazio-prozedura**

Espedientearen hasiera interesdunaren eskabidea da. Eskabidea Aldundiak normalizatutako ereduan egingo da, eskatutako dokumentazioarekin, eta Oiartzungo gizarte-zerbitzuen bulegoetan aurkeztuko da.
Eskabidea jasotzen duten udaleko gizarte-zerbitzuek aurkeztutako eskaeren edukia egiaztatuko dute, eta, horretarako, behar adina datu eta txosten eskatu ahal izango dizkiete beste erakunde edo entitate publiko eta pribatu batzuei edo eskatzaileari berari.
Udaleko gizarte-zerbitzuek egiaztatuko dute eskatzaileak bete duela berak edo bizikidetza-unitateko kideek balia ditzaketen eduki ekonomikoko gizarte-baliabide eta -prestazio guztiak baliatzeko betebeharra. Baldin eta eskatzailea edo haren bizikidetza-unitateko kideak baliatu ez dituzten eskubide ekonomikoen hartzekodun badira, beste edozein jarduketa egin aurretik, udaleko gizarte-zerbitzuek eskatuko diete beren eskubideak balia ditzatela indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera (salbuespena: artikulu honen 4. apartatuan aurreikusitakoa).

Eskabidea osatugabea bada edo gaizki badago, udaleko gizarte-zerbitzuek errekerimendua egingo diote eskatzaileari, atzemandako akatsa 10 eguneko epean zuzendu dezan edo dagozkion dokumentuak aurkez ditzan. Hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.
Udaleko gizarte-zerbitzuek, eskatzaileak eskabidean aurkeztutako egitate edo frogez gain, beste batzuk ere kontuan har baditzakete, entzunaldiaren izapidea egingo dute, hark dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan.
Laguntza-eskatzailearen beraren eta bere ingurukoen egoera aztertu eta baloratuta, udaleko gizarte-zerbitzuek jarduketa-konpromiso bat ezarri dezakete titularrekin eta, hala badagokio, onuradunekin, banakako arreta-planaren barruan gauzatzekoa.
Eskaera-orria behar bezala beteta, nahitaezkoa den dokumentazioa eta proposamena Gizarte Politikako Departamentura bidaliko dira, bitarteko informatikoen bidez.
Espedientearen izapideak egin ondoren, eta Gizarte Politikako Departamentuko zerbitzu teknikoek dagokien azterketa egin eta irizpena eman ostean, eskaera onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango da.
Ebazteko epea bi hilabetekoa izango da gehienez, laguntza ekonomikoaren eskaera aurkezten denetik hasita. Epe hori bukatu eta ez bada ebazpenik jakinarazi, interesdunek ulertu behar dute eskaera isiltasun administratiboaren bidez ezetsi dela.
Gizarte Politikako Departamentuak Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza onartzen edo ezesten duen ebazpenaren berri emango die interesdunei. Udaleko gizarte-zerbitzuek ere ebazpen horren berri jasoko dute.
Onuradunak edozein aldaketa edo gorabehera jakinarazi beharko dio Udalari, eta Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraziko dio, zeinak ebazpen berriak eman ahal izango dituen, interesdunari jakinarazpena eginda, eta, era berean, interesdunak berak Udalari jakinarazpena eginda.
-2016ko uztailaren 1etik aurrera, adingabeak edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak ardurapean dituzten pertsonek soilik eska dezakete laguntza ekonomiko hau, baldin eta guztiak 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen Gipuzkoan erroldatuta badaude eta bertan bizi badira.
Ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko foru-diputatuari.

2.3 Beste dokumentu batzuekiko lotura

2.3.1	Aurreko serieak	Ez
2.3.2	Beheragoko serieak	Ez
2.3.3	Lotutako serieak	-Gizarte-larrialdietarako laguntzen espedienteak
2.3.4	Bilduma-dokumentuak	Ez

III. BALORAZIOA

3. Balioak

3.1.	Administratiboa	Bai
3.2	Legezkoa/juridikoa	Bai
3.3	Zerga-alorrekoa	Bai
3.4	Informatiboa	Ez
3.5	Historikoa	Ez

IV. HAUTAKETA

4.1 Hautaketa-proposamena

Kontserbazio iraunkorra	
Guztiz ezabatzea	Bai, bulegoko artxiboan 5 urte egon eta gero. Espedienteak bizikidetza-unitateka ordenatuta badaude eta garbitzea erabakitzen bada, banakatu egin beharko dira, lehendabizi, serie horri dagozkion espedienteak.
Zati batean ezabatzea	

4.2 Laginketa-motaren proposamena

Hautakorra	
Ausazkoa	
Mistoa	
Probabilistikoa	
Beste batzuk	

4.3 Transferentzia-epeak

Artxibo nagusira: epea eta justifikazioa	
Tarteko artxibora / artxibo historikora: epea eta justifikazioa	

V. SARBIDEA

5.1	Askea	
5.2	Mugatua	Bai, DPBLO
5.3	Epeak	
5.4	Erreprodukzio-baldintzak	
5.5	Dokumentuen hizkuntza	Gaztelania/Euskara
5.6	Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	
5.7	Deskribapen-tresnak	
5.8	Iruzkinak	

VI.- OHARRAK

6.1	Oharrak	
6.2	Kudeatzailearentzako gomendioak	Dokumentu-serie honetan, Udalak onuradunaren eta Aldundiaren arteko bitartekari gisa esku hartzen du, izapidearekin lotutako dokumentazioa bidaltzeko eta sor daitezkeen aldaketak jakinarazteko, eta Aldundiaren eskumena da espedientea ebaztea. Udalean gordetzen diren dokumentuak jatorrizkoaren kopiak dira eta osatu gabe daude, ez baitute izapide osoa jasotzen.

VII- KONTROL-ARLOA / OHARREN ARLOA

Azterketaren arduraduna eta organismoaren izena	Almudena Coronado Letellier (Ereiten SL)
Landa-lana egin den artxiboa/k	Oiartzungo Udal Artxiboa
Aztertutako aldien muturreko datak	
Azterketaren data	2016/08/11
Azterketaren berrikuste-data	
DOBAUBAren onarpen-data	2017/03/06
EHAAko argitaratze-data	2017/04/11
Oharrak	